

**Eutsi egiten dio tokiko elikagaien aldeko apustuari**

**EROSKIK %8 HANDITU DITU EAE-KO  
BARAZKIEN SALMENTAK**

- EROSKI proiektu bat lantzen ari da bere hornitzaileekin barietateak berreskuratzeko eta inguru hurbilean landaturiko barazkiak merkaturatzeko EAEn dituen dendetan
- Azarotik apirila bitarteko hilabetetan, 2,7 milioi eurotik gorako salmentak izan ditu
- EROSKIK oso dibertsifikatuta dagoen tokiko nekazaritza-ehuna bultzatzen du, zeina giltzarria baita sektorearen iraunkortasunerako

**Elorrio, 2022ko uztailaren 29a.**- EAEn ekoitzi diren tokiko barazkien salmentak iaz baino %8 handiagoak izan dira [EROSKI](#)n neguko hilabeteetan. Euskal ekoizleen barazki salmentak 2,7 milioi eurotik gorakoak izan dira kooperatibarentzat negu garaian, azarotik apirila bitarte.

EROSKIK "Tokiko Barazki Plana" jarri du abian 50 ekoizle ingururekin, eta horri esker gertatu da igoera hori. Planaren helburua da, besteren artean, kooperatibak duen denda bakoitzaren inguru hurbilenean landatu diren barazkiei leku gehiago eskaintzea, eta landatzeari utzi zaion barietateak berreskuratzeko. "*Salmenten zifra horiek baieztatu egiten dute apustua egin dugula gure inguruko produktuak merkaturatzeko. Aurreikuspenetan bolumen-apustu handiagoak egin ditugu hornitzaileekin zenbait produktutan, adibidez leka, porru, kalabaza edo letxuga berezietan*", adierazi du Asun Bastidak, EROSKIren Tokiko Produktuen arduradunak.

Proiektu hori abiarazteak aldaketak ekarri ditu antolaketan, bai kooperatiban bertan, eta bai ekoizleekin lan egiteko moduan ere. Era berean, tokiko barazkien ekoizpena eta dendetako hornidura antolatzeko garaian, irizpide geografikoak ezarri dira eta zortzi eskualde bereizi: Bilbo, Bilbo Eskualdea, Bilbo Ezkerraldea, Durangaldea, Gasteiz, Gipuzkoa Itsasertza, Gipuzkoa Barnealdea eta Donostialdea. "*Plan horrekin egituratu egin nahi dugu sektorea eta tokiko barazkien eskaintza handitu, betiere freskotasun maila onarekin jartzeko kontsumitzaileen esku*", azpimarratu du Asun Bastidak.

**Espezialistak elikagai freskoetan**

EROSKIren belaunaldi berriko dendak are espezialistago bihurtu dira elikagai freskoetan, eta protagonismo berriua eskaintzen diete tokiko elikagaiei sasoian-sasoian. EROSKIren eredu komertzialak lagundu egin nahi du nekazaritzako elikagaien sektorea iraunkorragoa izan dadin eta oso dibertsifikatua; izan ere, haren

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

dendak plataforma irekiak dira inguru hurbilenean ekoizten diren elikagaiak merkaturatzeko. EROSKI elikagai freskoetan espezialista den proposamena eskaintzen die kontsumitzaileei; bere denden bereizgarri bihurtu ditu horiek, tokian-tokian ekoiztako elikagaiekin batean.

Bere balioek eta kultura kooperatiboak gidatuta, EROSKI beti egin du apustu tokiko ekonomien alde, inguru bakoitzean tokiko eta sasoiko produktuak sustatuz. Kooperatibak tinko eusten dio horien kalitatea ikusgarri egiteko konpromisoari eta lanean jarraituko du kontsumitzaileek merezi duten balioa eman diezaieten produktu horiei. Kontsumitzaileek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote produktuak inguru hurbilekoak izateari, sentiberatasun handiagoa dute-eta produktuen eta inguruaren iraunkortasunarekin.

### **Janari banatzaileetan lehena EAEn**

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra EAeko elikagaien banaketan. Lurrealde horretako 9.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta 1.700 euskal hornitzaileekin lankidetzan dihardu, haiei 770 milioi eurotik gorako erosketa eginez urtero.

EAEn 412 saltoki ditu guztira, hala nola supermerkatu eta hipermerkatu propioak nahiz frankiziatuak, cash & carry-ak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta [Forum Sport](#) dendak eta [Dooers](#) dendak, bai eta [on line](#) supermerkatua ere. EROSKI club-en fidelizazio programak milioi bat Bazkide Bezero inguru ditu autonomia erkidego honetan.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboa  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)